

TOLOSA / Zabalik da Usabal kiroldegiko igerilekuan udal liburutegia

Astelehenetik larunbatera 15.00etatik 19.00etara martxan dago zerbitzua

Tolosa. Dagoeneko Usabal kiroldegiko igerileku gunean kokatu den liburutegi zerbitzua zabalik da. Hala, bainu bat hartu edota eguzkia hartzeaz gain, irakurtzeko aukera ere egongo da kiroldegian.

Proiektu honekin, batetik, liburutegia herritarrei gerturatu nahi zaie eta, bestetik, ezagutzera eman. Izan ere, udan jendeak denbora asko igarotzen du igerilekuan eta irakurzaletasuna sustatzeko beste modu bat da honakoa. Edonork erabili dezake uda liburutegia: helduek, gazteek eta, noski, umeek. Bertan, egunkariak, aldizkariak, komikiak, eleberrri laburrak, turismoko gidaliburuak, sukaldaritzari buruzko liburuak.., aurki daitezke, baita haurrentzako ipuinak, komikiak, jolas-libururak, eta aldizkariak ere.

Astelehenetik larunbatera 15.00etatik 19.00etara bitartean egongo da zabalik, irailaren 7a arte. Beraz, erabiltzaileek zerbait irakurri nahi dutenean hara hurbildu eta irakurtzekoa aukeratu besterik ez dute eta han bertan dagoen liburuzainari erakutsi, mailegua programan apuntatzeko. 18.45ak arte izango dute hura itzultzeko epea. Norbaitek han bertan irakurri nahi izanez gero berriz, ez du txartela erakutsi behar, bertan egongo diren jarlekuetan edo belarrean eseri besterik ez. Kiroldegiko beste leku batean irakurri nahi denean egingo da mailegua, bestela ez. Bazkide-txartela ez dutenek han bertan egiteko aukera izango dute, mementoan egingo zaie eta.

Zerbitzuak Udako liburutegian irakurgelako mailegua (aldi baterako hartzea dokumentu bat) egin daiteke: kiroldegi osoan liburutegian hartutako liburuak irakurtzeko aukera egongo da. Material horrez gain, marrazkiak egiteko margoak eta papera eskainiko da, baita mahai-jokoak ere. Gainera, Tolosa eta bertako liburutegi zerbitzu orokorrari buruzko informazioa eskainiko da eta liburutegiko txartelak egingo dira. Era berean, liburuak eskatzeko aukera izango da eta Aranburuko liburutegian hartutakoak igerilekuan itzuli ahal izango dira. Wifi zerbitzu irekia ere badago.